**Eneko Landaburu Illarramendi**
Eskualde Politika eta Baterakuntzarako Zuzendari Nagusia
Director de Política Regional y Cohesión



Europako Elkartearen egitura Fondoek Bizkaiko ekonomia eta gizarte birmoldaketan egin duten ekarpenari buruzko erakusketaren lagungarri den Europroyectos liburuaren hitzaurre honetan, lehenengo eta behin, Bizkaiko Foru Aldundia zoriondu nahi dut. Zorion-emate honen bidez Europako Elkartearen finantza-laguntzarekin Bizkaian egin diren proiektuak jendeari erakutsi nahi izateagatik neure poztasuna adierazi nahi dut. Txalotxeko modukoa da Euskadin inbertsioak egiteko Europako Batasunetik jaso den laguntza horretaz informatzeko eta zabaltzeko egindako ahalegina.

Erakusketan aukeratu diren Europroiektuak, zehazki, FEDER eta FSEkin batera finantziaturik izanik, Foru Aldundiak eta Bizkaiko Udalek kudeatu dituztenak dira; ez dira beste iturri batzuen bidez Europaren finantzaketa hartu duten proiektu guzti-guztiak. Dena dela, erakusketa honek Europaren finantzaketa-laguntzarekin egindako proiektuen aukeraketa benetan zabala eskaintzen du.

Ezin bestela izan. Euskal Herria 1989-99 denboraldian ia lurralde osoan 2. helburu-eremutzat jo izan da eta, ondorioz, lehenespenezko finantza zuzkidura jaso du 2. helburuaz onuratu diren Europako eremu guztien artean. Lehentasun honek Euskadi —Katalunia, iparraldeko Renania-Westfalia eta Ingalaterrako iparraldeko bizpahiru industri eskualdeekin batera—, aipatutako 2. helburuaren aitzindari-taldean

*8. orrialdean jarraitzen du*

En el presente prólogo del libro Europroyectos, que acompaña a la exposición sobre la contribución de los Fondos estructurales comunitarios a la reconversión económica y social de Bizkaia, deseo en primer lugar felicitar a la Diputación Foral de Bizkaia. Dicha felicitación expresa mi satisfacción por haber querido mostrar al gran público la realización de proyectos en Bizkaia mediante la participación financiera comunitaria. Es importante que se haya querido efectuar un esfuerzo de información y publicidad de dicha ayuda de la Unión Europea a la realización de inversiones en Euskadi.

Los Europroyectos que se han seleccionado en la exposición corresponden concretamente a los cofinanciados por el FEDER y por el FSE, que han sido gestionados por la Diputación Foral y los Ayuntamientos vizcaínos no incluyéndose de forma exhaustiva todos los proyectos que han recibido financiación europea a través de otras fuentes. No obstante, el conjunto de proyectos cofinanciados por Europa que esta exposición ha seleccionado es realmente considerable.

No podía ser de otro modo. El País Vasco, que en los años 1989-99 ha sido definido como zona del objetivo nº 2 en prácticamente todo el territorio, es una zona que ha obtenido una dotación financiera prioritaria en el conjunto de zonas europeas beneficiarias del objetivo nº 2. Esta prioridad ha situado a Euskadi, junto con Cataluña, la Renania del Norte-

*sigue en la página 8*



**Pedro Hernández González**
Lan eta Ekonomi Sustapeneko Foru Diputatua
Diputado Foral de Promoción Económica y Empleo



Hamar urte igaro dira Bizkaiak Europako eskualde politikari ekin zionetik, gure ekonomia eta gizartearen garapenerako Elkartearen finantzaketaz onuratzeko.

Hamar urteok oso emaitza ona utzi dute eta, Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Ekonomi Sustapen Sailetik, Europako Elkartearen finantza-laguntzarekin Bizkaian egin diren ekintzen lagina erakusten duen argitarapen honen bidez azaldu nahi dut.

Orrildeotan zehar egiten den ibilaldiak —nirekin batera egingo ahal duzu!— Europako egitamuetan sartuta dauden alor gero eta ugariagoen eta Bizkaiko ekonomia eta gizartean duten eraginaren ikuspegi orokorra azaldu nahi du.

Lagin honen bidez XXI. mendearen atarian Europako Batasunean egoteak lanpostuen sorkuntzan, lehiakortasunaren hobekuntzan edo ingurugiroaren leheneratzean dakartzan onurak ikusi ahalko dituzu.

Argitarapen honen bidez beste urrats bat egiten dugu Bizkaian lortu den Europako finantzaketa-laguntza ezagutaraziz. Gainera, gustura egiten dugu urrats hau, Europan bete-betean aritzeak garapen osorako duen garrantziaz hausnartzeko aukera emango digula uste baitugu.

Hala ere, finantzaketa-laguntza hainbat ekintzak jaso dutenez, aukeraketa egitea zaila eta neketsua gertatu zaigu. Horregatik, argi utzi nahi dugu argitarapen honetan ez direla

*9. orrialdean jarraitzen du*

Han transcurrido diez años desde que Bizkaia iniciara su andadura en la política regional europea, beneficiándonos del financiación comunitaria para nuestro desarrollo económico y social.

Diez años de balance muy positivo que, desde el Departamento de Promoción Económica y Empleo de la Diputación Foral de Bizkaia, deseo ofrecer a través de esta publicación en la que se recoge una muestra de las actuaciones que, con cofinanciación comunitaria, se han realizado en Bizkaia.

El recorrido a lo largo de estas páginas, que le animo a realizar conmigo, pretende ofrecer una visión general de la cada vez mayor variedad de áreas involucradas en los programas europeos y su incidencia sobre la economía y sociedad vizcaina.

A través de esta muestra, podrá apreciar los beneficios que en la creación de empleo, en la mejora de la competitividad o en la recuperación medioambiental nos aporta, en el umbral del s. XXI, pertenecer a la Unión Europea.

Con esta publicación damos un nuevo paso destinado a promover una mayor difusión de la cofinanciación comunitaria que se ha logrado en Bizkaia, paso que damos gustosamente en la seguridad de que nos hará reflexionar a muchos de nosotros de la importancia que, para el desarrollo integral, tiene nuestra participación activa en Europa.

*sigue en la página 9*

jarri du. Laguntzok jasotzerakoan Bizkaiaren tamaina berebizikoa izan da, jakina.

Europroyectos, dena dela, ez da Elkartearen ekimenen ondorioz FEDER eta FSErekin batera finantzaturiko egitamu operatiboetara mugatzen. Izan ere, Resider, Renaval, Stride edo Urban bezalako jarduketek, Europako Batzordeak birmoldatzen ari diren arlo eta eremuentzat erabakitako lehentasuna erakusten dute, hor Bizkaiak agerpen nabarmena izanik.

Aurkezpen labur honetan ez ditut aztertuko Europaren finantza-laguntzaz onuratu diren ekonomia eta gizarte jarduketa-arlo anitzak. Liburuak eta erakusketak zehaztasun handiz azaltzen dituzte proiektuak. Aipatu nahi dut, ordea, oinarrizko azpiegiturekin batera (batez ere garraio eta ingurugiro arloetan), Bizkaiak Elkartearen egiturazko finantzaketa-laguntza ere lortu duela industria eta teknologiaren garapenerako eta, oro har, ekonomiaren sustapenerako. Aipatutako egitamu operatiboetan, langabeziaren aurka eta birmoldaketaren alde egindako borroka, zalantzarik gabe, lehentasun handiko gaia da Bizkaiko Foru Aldundiarentzat eta Bizkaiko udalentzat.

Hitzaurre hau bukatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera antolatutako Europroyectos erakusketari arrakastarik handiena opa nahi diot eta, berriro, Europako Batasunak Bizkaian egindako eskualde politika ezagutarazteko ahalegina txalotu egiten dut.

**Eneko Landaburu Illarramendi**



Westfalia y las dos o tres regiones industriales del norte de Inglaterra, en el grupo de cabeza del mencionado objetivo nº 2. Lógicamente, el peso de Bizkaia en dichas ayudas ha sido capital.

Europroyectos no se limita, sin embargo, a los proyectos cofinanciados por el FEDER y el FSE en el contexto de los programas operativos de iniciativa comunitaria. En efecto, actuaciones como Resider, Renaval, Stride o Urban, señalan la atención preferente acordada por la Comisión Europea a sectores y zonas en reconversión, en los que Bizkaia tiene una presencia notable.

No recorro, en esta breve presentación las variadas áreas de actividad económica y social que han sido beneficiadas por la cofinanciación europea. El libro y la exposición ofrecen los proyectos con detalle sobrado. Sí deseo indicar, en particular, que al lado de infraestructuras de base (principalmente en los sectores de transportes y medio ambiente), Bizkaia ha obtenido cofinanciación comunitaria estructural para una serie muy completa de proyectos más concretamente enfocados al desarrollo industrial y tecnológico, a la promoción económica en general. En los programas operativos mencionados, la lucha contra el desempleo y en favor de la reconversión ha supuesto y está suponiendo una indudable prioridad para la Diputación Foral de Bizkaia y los ayuntamientos vizcaínos.

Quiero, al finalizar el presente prólogo, desear el mayor de los éxitos a la exposición Europroyectos conjuntamente desarrollada con la Diputación Foral de Bizkaia y valorar nuevamente su esfuerzo de divulgación de la política regional de la Unión Europea en Bizkaia.

**Eneko Landaburu Illarramendi**

biltzen Bizkaian Elkartearen laguntzaz egindako ekintza guztiak eta, horrenbestez, liburu honetan azaltzen ez den proiektu asko dagoela.

Hemen biltzen diren ekintzak bultzatu dituzten erakundeengandik hartu dugun laguntza eskertu nahi dut, lana egiteko beharrezko informazio eta dokumentazioa eskaini baitizkigute. Bereziki Europako Batzordearen Eskualde Politika eta Baterakuntzarako XVI. Zuzendaritza Nagusitik hartutako laguntza azpimarratu nahi dut.

Hemendik, Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Ekonomi Sustapen Sailaren laguntza osoa eskaini nahi dut Bizkaia eta Europaren alde lan egiteko.

**Pedro Hernández González**

Sin embargo, la pluralidad de las actuaciones cofinanciadas nos ha obligado a realizar una difícil y costosa selección. Por este motivo, deseo dejar constancia de que no se trata de una publicación exhaustiva sobre las actuaciones realizadas en Bizkaia con cofinanciación comunitaria y que, en consecuencia, son muchos los proyectos que no se han podido reflejar en este libro.

Quiero agradecer el apoyo que hemos recibido de las diferentes entidades impulsoras de las actuaciones aquí incluidas que nos ha permitido contar con la información y documentación necesaria para realizar este trabajo. Deseo subrayar muy especialmente el apoyo recibido de la Dirección General XVI, Política Regional y de Cohesión de la Comisión Europea.

Desde aquí ofrezco todo el apoyo y colaboración del Departamento de Promoción Económica y Empleo de la Diputación Foral de Bizkaia para continuar trabajando por Bizkaia y por Europa.

**Pedro Hernández González**

